

noaua

**Emakumeen Etxea sortzeko
lehen urratsak eman ditu
Udalak**

**Aginagako eliza
zaharberritua,
berriagoa etorkizunean**

**Hurbilagok sari ugari
banatu zituen San Silbestre
lasterketa amaieran**

Joseba Undiano, odol-emailea:

**“Odola ez da fabrikatzen, beraz, norbaitek
eman behar du eskuragarri egon dadin”**

GOLDWELL
ELUMEN

ile apaindegi

mistoa

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO, HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H, (edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA


943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE...•ERRAUSKETAK




www.funerariagonzalez.es

BEHERAPENAK



Marije
Arropa denda

Etxebeste 3 - 943361106

 facebook.com/marijearropadenda

URDAIRA

Sagardotegia

Urtarrilaren 11an, **LARUNBATA IREKITZEN DUGU!!!**
astelehenak itxita



Aginaga 943 37 26 91

Albiste iruditan

Zaurituak trenbide eta errepideko puntu arriskutsuetan

Stripuekin agurtu genuen urtea Usurbilen. Abenduaren 21ean A8an Aritzeta inguruan eta N-634 errepidean, Usurbil eta Aginaga artean izandako istripu banatan lau lagun zauritu ziren. Aginagara bidean gertaturiko bi autoen talkan, bi gidariak larri eraman zituzten Donostia ospitalera. Abenduaren 28an bestalde, ezbeharra izan zen Ingemar ondoko trenbideko oinezkoen pasabidean. Lagun bat zaurituta eraman zuten ospitalera, trenak harrapatu ostean. Ezbehar honen harira, Usurbilgo Udalak beste behin gogorazi zuenez, “puntu arriskutsuei irtenbide bat ematea ezinbestekoa eta presazkoa da”. Gertaera honek are modu agerikoagoan islatzen du Udalaren esanetan, “segurtasun falta. Pasabide seguruak behar ditugu”. Herrian diren puntu arriskutsuei,



Abenduaren 28an ezbeharra izan zen Ingemar ondoko trenbideko oinezkoen pasabidean. Lagun bat zaurituta eraman zuten ospitalera, trenak harrapatu ostean.

“irtenbide bat ematea ezinbestekoa eta presazkoa da”, Udaletik nabarmentzen dutenez. Trenbidean gertaturikoaren os-

tean iragarri zutenez, “dagokien ardura-dunekin harremanetan jarraituko dugu arazoa konpon dezaten”.

Laburrean

Ahalduntze eskolaren ikastaro berriak

Bi ikastaro antolatu ditu Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak 2020ko lehen hiruhilabete honetarako Bake Epaitegi atzeko lokalean:

■ Astelehenetan, 15:30-17:00 artean.

■ Irakaslea: Elen Kortaxarena Gesalaga.

■ Izen ematea urtarrilaren 8ra arte.

■ Urtarrilak 16/ apirilak 2.

■ Ostegunetan, 17:00-19:00 artean.

■ Izen ematea urtarrilaren 14ra arte.

Biodantza ikastaroa:

■ Urtarrilak 13 / martxoak 30.

Maitatu, berdintasunetik:

“Amar desde la igualdad: construyendo vínculos afectivos de buen trato”:

Izen-ematea, doan

943377110 parekidetasuna1@usurbil.eus

Oharra: usurbildarrek lehenetsuna izango dute.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberrí, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa:

Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



Euskal Herra!

Euskal presoak



Imanol Ubeda

Aurpegia dute, gero

Anglizismoak urrezko garaia bizi du. Hanteta hemen. Orokorra da. Eta orokorra denez, jarraitzaile asko ditu gurean ere. Euskadi Basque Country, Bilbao Exhibition Center, Basque Culinary Centre, Bizkaia Talent... Amaigabea da adibideen zerrenda. Eta iritsiko direnak. Klima aldaketari buruz Madril en egin den kongresuaren inguruko artikuluko batean topatu dut beste hauxe: *greenwashing* (berdea eta *garbiketa* hitzen arteko uztarketa). *Hara, anglizismo berri bat*, nire artean. Laburra, zuzena, gure entzumen domestikatuan arin eta erraz sartzen den horietakoa.

Artikulua irakurtzen hasi orduko, bestelako kutsua su-

matu diot ingeles jatorriko hitz jokoari. Ez baita marketing bulego batek asmatutako leloa. Alderantziz. *Greenwashing* delakoa talde ekologistak baliatzen ari dira, multinazionalen itxurakeria agerian uzteko.

Madrilgo goi bileran, 200 bat herrialdeetako gobernuak hartu dute parte. Bilkura urtero egiten da eta nazioarteko agintari eta aditu ugari batu ohi da bertan. Hori dena antolatzeke, babesleen ekarpena ezinbestekoa da. Madrilgo kasuan, Endesa eta Iberdrola izan dira laguntzaile nagusiak. 2018an, berotegi gasen isurketa gehien eragin zituzten 10 enpresen artean zeuden biak. Hori gutxi balitz, erregai fosiletan milioika euro inbertitzen dituzte biek ala biek. Horra *greenwashing*

zer den azaltzeko adibide argigarri bat. Aurpegi garbiketa agerikoa.

Beste multinazional batzuk publizitate kanpaina harro samarrak egin dituzte Madrilgo goi bilerak iraun duen bitartean. Coca Colak, esate baterako, kanpaina bitxia burutu zuen. Hiriko bus geltoki guztietan kartel hau ipini zuen: *elkarrekin ez badugu birziklatu behar, ez erosi Coca Cola*. Txikieria bat aipatzea ahaztu zitzaion. Merkaturatzen dituzten plastikozko botilak ez direla guztiz birziklagarriak. Talde ekologistek esker jakin dugu: Coca Colaren plastikozko ontzien birziklagarritasuna %25ekoa da gaur egun. *Elkarrekin ez badugu birziklatu behar, ez erosi Coca Cola*. To *greenwashing!*

Ekologisten enbidoari, Coca Colaren hordagoa: 2022rako, %50ekoa izango da plastikozko ontzien birziklagarritasun maila. Pentsatzen hasita, oso esanguratsua da Coca Colaren kanpaina, eta kanpainaren harira egin duen iragarpena. Batzuk eta besteek epe luzerako promesak eginez limurtzen gaituzte. Horrela doaz urteak, horrela hamarkadak. Bien bitartean, mundu mailako berotzea goruntz doa etengabe.

Hau idazten ari nintzela, Google bilatzaile ahalguztidunean murgildu naiz eta *greenwashing*-en euskarazko aldaera egoki bat topatzen saiatu naiz. *Aurpegia dute, gero!* esamoldea irakurri dut hiztegi batean. Ba horixe bera.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbegozo

Greba batzordea lanean

Lan, pentsio eta bizi duinen aldeko greba orokorra deitua dute Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta eragile anitzek urtarrilaren 30erako. Usurbilen prestaketa lanak bideratzen hasiak dira. Greba batzordea osatzeko lehen bilera egin zuten abenduaren 20an. Bigarren saio bat deitu dute, urtarrilaren 8an 18:30ean Potxoenean.



Urtarrilaren 8an berriro batzekoak dira Potxoenean.

Gure Eskuren Tripontzia

94.000 euro izango dira jokoan. Urtarrilaren 20an ospatuko den sari banaketarako txartelak guneotan eros ditzakezue: Atxega Jaurerian, Aitzagan, Zubietako Alamandegin, Artzabalen, Bordatxon, Bentan, Guria tabernan, Santueneko Gure Elkartearen, Laukoten, Opil Goxon, Txiribogan, Txirris-tran eta Zendoian.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Aginagako eliza zaharberritua, berriagoa etorkizunean



“Gure proiektua puntuka dago garatua. Pausoz pauso joan nahi dugu. Garrantzitsuena, herritarrek beraiena sentitzen duten tokia izatea nahi dugu”.

Aginagako Eliza Zaharra berritze bidean dute. Bada denbora zaharberritzen hasi zirela. Erronka argi bat dute eskuartearen; historikoki San Praixkuetako festa gune nagusietakoa eta tar- teka kontzertu nahiz bestelako antzezlan edo ikuskizunen ohol- tza izandakoa, kultur- gune izatetik haratago, aginagarren bilgunean bilakatzea.

Erabilera anitzeko biltokian hain zuzen; belaualdi ezberdinetako herritarren to- pagunean, herritarrek elkartu edo denetariko ekimenak antolatzen segitzeko ohol- tza. Horretarako ordea, egungo baldintzak hobetu nahi dituzte. “Toki hau hobetu beharko litzatekeela iruditzen zaigu”, aipatu digute Aginagako Jai Batzordeko kideek. Lurra txukundu, komuna jarri, argindar sistema hobetu, ur beroa eta berogailua ezarri... “Horrek asko lagundu dezake Aginagan gauzak antolatzen. Toki hau askoz dotoreago eta txukunago geratuko litzateke”.

Hobekuntzok guztiak bide- ratzeko lanean hasiak dira Aginagan. Jai Batzordeko zenbait

JAI BATZORDEA

“Toki hau hobetu beharko litzatekeela iruditzen zaigu”, aipatu digute Aginagako Jai Batzordeko kideek. Lurra txukundu, komuna jarri, argindar sistema hobetu, ur beroa eta berogailua ezarri...

kide biltzen aritu dira azken urtebetean. Aurrez enkarga- tutako proiektua garatu die Usurbilgo Origami arkitektura bulego-koek. “Guk irudikatzen dugun Eliza Zahar ideal horren proiektua lantzea eskatu genien”, adierazi diote aginagarrek aldizkari honi.

“Herritarrek beraiena sentitzen duten tokia izatea nahi dugu”

Landutako proiektuaren xehetasunak aurkeztu zizkieten aginagarrei, joan den abenduaren 18an egitasmoa gauzatu asmo duten gunean bertan, Eliza Zaharrean. Egitasmoa ezagutarazi eta bertaraturiko iritziak biltzeko deitu zuten hitzordua.

Auzolanean garatu nahi dituzte biltoki izaera indar- tu nahi duten eraikineko ho- bekuntza lanak. Pausoka, urratsez urrats, Origamikoek diseinaturiko proiektuak ze- haztu bezala. “Gure proiektua puntuka dago garatua. Pausoz pauso joan nahi dugu. Garrantzitsuena, herritarrek beraiena sentitzen duten tokia izatea nahi dugu”. Ez dute bat batean eraikina goitik behera berritzeko beharrezko lagun- tza jaso eta lanak bideratu nahi “eta gero leku hau inork berea ez sentitzea, hemen ezer ez egotea”.

Pixkanaka burutu nahi di- tuzte hobekuntza lanok, eta pauso bakoitzean “herriak zer nolako babesa ematen digun” ikusi nahi dute. Aipatu mo- duan, pixkanaka egin nahiko litzateketen hobekuntzen ar- tean daude, “lurra berritzea, komun bat jartzea, barra bat jartzea, ohol- tza handitzea...”. Gunea berritu eta irisgarritasuna guztiz bermatzea, egun “sarbide zailak” baititu hain- bat pertsonentzat. Hitz gutxi- tan, Eliza Zaharra “egokitu eta baldintza duinetan jartzea” da proiektu honen xede nagusia.

Erabilera anitzeko bilgunea

Garai batean Eliza Zaharra berritzeko hasitako auzolana- ren segida izango da nolabait Aginagako gazte hainbatek proposatu dutena. Gune ba- ten faltan baitaude. Garai ba- tean ludoteka zabaldu zen, haur eta gaztetxo- en aisialdi lekuan baita eskolaren bai- tako eremuan bilakatu dena. “Egoteko nahiz ekimenak antolatzeko toki bat falta da”.

Urte luzez jaietako pa- randa gau jendetsuen gune mirestuen jarria dute be- girada. Eta ez Jai Batzordeak soilik. Antxomolantxa Elkar- tea edota San Praixku Gura- so Elkartea ere hasiak dira berritze bidean den Eliza Za- harrean hainbat ekitaldi an- tolatzen; ikasleen eskolako emanaldiak, Euskararen Egunari lotuta azken al- dian antolaturiko antzezlan edo ikuskizunak, Olentzeroren etorrera... Eliza Zaharra berritu eta egokituta Agina- ga mailako herri bizitza eta dinamika ezberdinak susta- tzen lagungarria izango li- tzatekeela irizten diote, hala nola, bilerak egin, kontzer- tuak antolatu edota haur nahiz helduen bilgune la- nak egitearekin batera, jen- de gehiago erakartzeko ere baliagarria izango da. “Herri giroa egon badago, baina halako leku baten falta du”.

Auzolana, abiapuntua

Garatu nahi duten proiektua lehendik eginiko hobekun- tza lanen segida izango litzateke. Denbora bada eta Eliza Zaharra berritzen hasiak zirela. Besteak beste, fatxada berritu zuten aginagarrek eta eliza barrua margotu, lokala txukundu... zegokien prestakuntza jasota auzolanean. “Auzolanak bere fruitua eman zuen eta orain ere asmo horrekin gabiltza”.

Agurtzane Solaberrieta: “Aniztasuna ez da mehatxu bat; aberastasuna da”

2020rako “aurrekontu-proiektu ona dugu”. Agurtzane Solaberrieta alkatearen esanetan, inbertsioetarako ahalegin handia egin dute. “Zaurgarritasun eta ziurgabetasun egoeran dauden herritarrei laguntzeko, auzoen beharrei erantzuteko, emakumeen ahalduntzean sakontzeko, aniztasunari balio emateko, ingurumenarekin abegikorrak diren politikak sustatzeko eta usurbildarrei udal zerbitzu eraginkorra eskaintzeko”. Abenduan plazaratu genuen elkarrizketatik kanpo geratu ziren hainbat kontu jaso ditugu orriotan.

Agintariak aurrekontu proposamenak plazaratzen dituztenean, inbertsioen atalean erreparatzeko joera dago. Alkateak ordea, 2020ko udal aurrekontuen beste ezaugarri batzuk nabarmendu nahi ditu. Kohesio sozialean sakontzeko asmoa, esate baterako.

Bizikidetzan sakondu

Migrazio mugimenduak ohi-koak dira bai munduan, baita gurean ere, Euskal Herrian zein



Bizikidetzan sakontzea, hori izango da legegaldiko ardatz nagusietako bat udal gobernu taldearentzat.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Aniztasuna modu egokian kudeatu behar da.

Plangintza edo bide orria behar dugu, eta horixe da legegaldi honetan gauzatu nahi dugun proiektu garrantzitsuetako bat”

Usurbilen. “Ondorioz, jatorri, kultura, hizkuntza, erlijio eta, oro har, identitate aniztasunaren kudeaketa erronka handia da gizartearentzat. Eta, noski, baita Usurbilentzat ere”. EH-Bilduk gidatzen duen udal go-

bernu taldearen premisa argia da: “aniztasuna ez da mehatxu bat; aberastasuna da. Hortaz, gure herri eta auzoetako aniztasuna kohesio sozialerako elementu bilaka dadin, aniztasuna modu egokian kudeatu behar da. Plangintza edo bide orria behar dugu, eta, horixe da legegaldi honetan gauzatu nahi dugun proiektu garrantzitsuetako bat”. Bizikidetzan sakontzea, hori izango da legegaldiko ardatz nagusietako bat. “Azterlan bat abiatzera goaz”. Diagnostiko horretan oinarrituta, “plangintza oso bat”

definituko dute.

Udalaren digitalizazioa

Aurrekontuak lantzeko orduan, “kanpora begira jarri gara, baina, baita ere, barrura begira”. Udala berrantolatzeko “lau lan-lerro zabaldu ditugu, usurbildarrei kalitatezko udal zerbitzu eraginkorra eskaintzeko”. Udalaren digitalizazioa; Artxibo sistema berria ezartzea (aurrez artxibo zaharra antolatuta); udaletxearen antolaketa berri bat diseinatzea eta kalitatezko enplegu publikoak sortzea.

Artzabal eta Mikel Laboa plaza arteko errepidea “oinezkotu” nahi du Udalak

Mugikortasun jasangarriaren bidean, bi egitasmo nagusi ditu udal gobernuak. Bate-tik, Artzabal eta Mikel Laboa arteko errepidea oinezkotu. Eta bestetik, Txikierdi eta herri-sarrera bidegorri bidez lotu.

Orain gutxi arte, autoak zeuden kaxkoen erdigunean. Oinezkoen kaltetan. Gauzak aldatzen hasiak dira ordea. Artzabal parkea eta Mikel

Laboa plaza toki jendetsuak dira. Bien arteko errepidea oinezkotu egin nahi du Udalak, “eta irisgarri egin”.

Txikierdi eta herri-sarrera bidegorri bidez lotzeko asmoa ere badu Udalak. Baina ez dirudi epe laburrean emango denik. N634 errepideko esku-duntzak Foru Aldundiarenak dira. “Egitasmo honi inolako lehentasunik eman ez dionez, guk landuko dugu proiektua”.



Bi guneen arteko errepidea oinezkotu egin nahi du Udalak, eta irisgarri egin.

Emakumeen Etxea sortzeko lehen urratsak eman ditu Udalak

Emakumeen Etxea sortuko dugu, emakumeon ahalduntzea sustatzeko. EH Bilduren hautes-programatik hartu dugu esaldia. Promesa zena legealdi hasiera honetan egikaritzen hasi nahi dute. Eta dagoeneko badute balizko egoitza bat buruan: Pelaiouena etxea, Kalezarren kokatuta dagoen eraikina. Inbertsioen atalean, hain justu, 200.000 euroko partida jaso da Pelaiouena kanpotik berritzeko.

Eraikina berritzen hastearekin batera, “parte-hartze prozesu bat jarriko dugu martxan herriko emakumeekin”. Emakumeen Etxea denen artean definitzeko helburuarekin egingo da prozesu partehartzailea.

Eraikinaren fatxada berritzeko 200.000 euro inbertituko dira Emakumeen Etxearen egoitza izateaz gain, auzoak erabiltzeko moduko eraikina izango da Pelaiouena.

2020. urteko aurrekontuetan, udal gobernuak auzoetan jarri nahi du arreta, “auzota-



Teilatua bota eta barrua hustu egin dute, eraikinaren egoera kaxkarra zelako. “Segurtasun neurri gisa egin behar izan dugu”, alkateak aditzera eman digunez.

PELAIOENEA, KALEZAR

“Emakumeen Etxearen egoitza izateaz gain, Kalezar auzoak erabiltzeko moduko eraikina izango da Pelaiouena”

rren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Ez ditugu kaxkoa eta auzoen arteko ezberdintasunak areagotu nahi. Auzoek ere e-

zaugarri, behar eta errealitate propioak dituzte eta horietan ere arreta jarri nahi dugu”. Alkateak abenduan azaldu zigunez, auzo bakoitzaren beharrak identifikatu nahi dituzte lehenbizi. “Bertako komunitatea kontuan hartuz, eta eurekin batera landuko ditugu proposamenak, kohesio soziala, mugikortasun jasangarria eta zerbitzu publikoen esku-ragarritasuna bermatzeko”.

Txokoaldeko gaztetxearen inguruan Udalak eta auzotarrek egin duten prozesua adibide-tzat har daiteke.

Etxealdia auzoko berrantolamendua

Etxealdia auzoan, hortaz, Udalak antzeko jokatu duela ondorioztatu daiteke. Auzoaren antolamendu berri bat egiteko, auzotarrek batera parte-hartze prozesu bat abiaraziko dute.

Elutx bidea Aginagan



Aginagak baditu bere behar espezifikoak. Horietako bat da eremu ezberdinen arteko konexioa. Elutxeko etxebizitzetan eta kaxkoan bizi dira Aginagako umeen %90. N634 errepidea da biak lotzeko traba

nagusia. Lotune hori konpon-tzera etorriko da Elutxeko bidea. Oinezkoentzat izango da, errepidearen paraleloan zabalduko dena. Aginagako sagardotegiaren azpikaldetik, zehatzago esanda.

350.000 euro, herriko ur-sistema berritzeko

Erroizpeko presa polemikaren erdian egon zen 2017ko azaroan. Ur-sisteman gertatutako huts-egiteak ondoeza eragin zuen herritar askoren artean. Geroztik hona, Udala herriko ur-sistema berritzen aritu da.

Instalazioak berrituko dira

Bada zereginik oraindik eta 2020ko udal aurrekontuetan diru partida bat gorde da propio. Ur sistemaren errebisio bat egiteaz gain, instalazioak berrituko dira.

“Urte gutxitan amortizatuko dugu”

“Helburua da Erroizpeko urarekin ia herri osoa hornitzea. Ikusiko ez den inbertsio bat izango da, baina gure ur baliabideak ustiatzen jarraitzeko ezinbestekoa izango da. Gainera, urte gutxitan amortizatuko dugu”. Presan filtrazio sistema berri bat ezarriko dela zehaztu digu alkateak. “Inbertsio potolo bat da, 350.000 euroz hitz egiten ari gara”.

Udal diru-laguntzetara eskabideak aurkezteko epea zabalik

Urtarrilaren 8az geroztik zabalik da 2020ko Usurbilgo Udalaren diru-laguntzetara eskabideak aurkezteko epea. Lerrootan dituzue xehetasunak, informazio gehiago urtarrilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, usurbil.eus atarian eta udal iragarkien taulan jasoko duzue.

Gizarte ongizatea:

Kontuan hartuko dira besteak beste, ekimenen hartzaileak zeintzuk diren, egitasmoen ezaugarriak, gizarte eragina, genero ikuspegia txertatzea, berdintasuna helburu duten ekintzak txertatzea...

Ingurumena:

Ondoko lehenetsunezko ekintzak finkatu ditu Udalak diruz laguntzeko: energiaren kontsumoa murrizteko egindako inbertsioak, Usurbilgo Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren helburuekin bat datozenak, hondakinen murrizketa eta birziklapena bultzatzeko ekintzak...

Kirola:

Kirol taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak

%22a denboraldiko lizentzia kopuruetara bideratuko da, %22a denboraldiko kirol lizentziak sortutako gastuetara, %22a denboraldiko arbitraje gastuetara, %7a emakume, urritasundun edo 3. adineko kirol federatuen kopuruetara, %3na eskola kirolera, kalitatezko entrenatzaileen sustapenera, euskal kirolerara eta autofinantziatoria; %8a bidaia gastuetara, %4a beste gastuetara eta %3a jardueren kalitatezko ekintzak...



Informazio gehiago urtarrilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, usurbil.eus atarian eta udal iragarkien taulan jasoko duzue.

LOKAL HUTSAK

“Lehentasuna izango dute herri gunean nahiz auzoetan gaur egun herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek eta ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipeneoak diren proiektuek”

Emakumeen eta gizonen berdintasun jardueren planetako diru-laguntza zuzenak

Kontuan hartuko da emakumeen kolektiboek zuzendutako egotea. Berdintasunaren aldeko taldeen konpromiso maila ere aintzakotzat hartuko da. 5.000 euroko muga.

Kirol egokituko jardueren diru-laguntza zuzenak

“Espresuki kirol egokituko kolektiboek zuzendutakoak eta inklusioari lotutakoak hartuko dira kontuan”. 3.000 euroko muga.

Kirol elkarteentzako ez diren kirol jardueretako ohiko diru-laguntza zuzenak

“Udalari eskatutako diru-laguntzaren % 60a lagunduko da diruz. Ikastaroko parte-hartzaile bakoitzeko udalak emango duen gehieneko diru-kopurua 100 eurokoa izango da. Ikas-

taroek, derrigorrez, parte-hartzaileen diru-sarrera izan behar dute. Ez dira onartuko diru-sarrerarik ez duten ikastaroak”. 1.000 euroko muga.

Norgehiagoka erregimenekoak ez diren laguntzak

Hiru programa: laguntza bezeziak (5.400 euro), taldeetako prestakuntza teknikoak (1.000 euro) eta kirolarien oinarrizko osasun miaketak (9.000 euro).

Kultura:

Egitasmoak hartuko dira kontuan: eskatutakoaren %60arekin lagunduko dira diruz gehienez, ikastaro, irteera, kanpamendu, udako ekintza eta txokoak; gehienez jota %95a gainerako kultur ekintzak. 80.000 euroko partida.

Nekazaritza, abeltzaintza:

“Gehienez ere kostu osoaren %50a izango da, eta eskatzaile bakoitzari gehienez 2.000 euro emango zaizkio”. Lehenetsunez ekintzok lagunduko dira: 28 urtetik beherako nekazari gazteen ustiapen berriak, ekoizpen ekologikoa, abandonaturiko nekazal lurren berreskuratzea, baserriarren lan-baldintzen hobekuntza, bertako produktuen kontsumoa...

Deserrotze eta bazterte sozialeko arriskuan daudenei erantzuteko diru-laguntzak:

“2019ko joan-etorrien gastuetan, batetik, Usurbildik kanpo dauden pertsonen senideei eta, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz aldi batez haien ingurune familiarra etorri ezin diren pertsonen senideei” zuzendua.

Igogailuen instalakuntza:

Onuradunak, “Usurbilen bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua jartzen duten titularrak dira”. Eskaera bakoitzeko gehienez 1.000 euroko laguntza emango da.

Merkataritza lokal huts batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipintzeko laguntza:

“Lehentasuna izango dute herri gunean nahiz auzoetan gaur egun herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek eta ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipeneoak diren proiektuek”. Lehen urtean alokairu gastuaren %40a (gehienez hileko 300 euro), bigarrean %30a (gehienez 200 euro hilean) diruz lagunduko da.

Hasiz Hazi beka deialdia:

Kabiene elkarlan-gunearen urtebeteko erabilerarako. Deialdi honen onuradunak izango dira, Beterri-Buruntzako udalerriren batean erroldaturiko adinez nagusiko herritarrak, “Usurbilgo udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena dutenak”. Bekaren gehieneko zenbatekoa 1.089,00 eurokoa izango da.

Xua eta motxiladun haurrak gurasoekin etxeratzeko manifestazio jendetsua Donostian

Xua gurasoekin etxeratzeko eskaerak milaka lagunuen babesa jaso zuen Sarek eta aipatu izen bereko herri plataformak deituta abenduaren 28an Donostian egin zuten manifestazioan. Porrotzek eta hurrek eraman-dako ixa erraldoi bat buruan zela abiatu zuten musikariek giroturiko kalejira koloretsua.

Hilaren 19an hiru urte beteko ditu, guraso Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarekin Valentziako Picassenteko espetxe berean bizi izan den Xuak. Espainiako legediak behartuta, gurasoengandik bereiziko dute bere urtebetetze egunean eta ehunetik gora adin txikikoek osatzen duten “motxiladun haurren” (guraso bat edo biak espetxean dituzten haurren) kolektiboko kide izatera igaroko da.

“Xua eta motxiladun haur guztiak etxean nahi ditugu”

Donostiako manifestazioan gogorazi zutenenez, “denbora daramagu eskatzen behin betiko amai dadila motxiladun haurrek pairatzen duten sufrimendu hau”. 3 urteetan gurasoekin bizi eta bat batean bereizteak haurrengan eragiten duten kalte psikologikoaz ohartarazten dute, “haurrak banaketa jasa-



Abenduaren 28ko manifestazioaz gain, ekitaldi gehiago ere iragarri dituzte. “Urtarrilaren 19an Xuari zorionak zuri kantatuko diogu Atanotik”.

DEIALDI GEHIAGO

Donostiako manifestazio amaieran, ‘Motxilak gora!’ ikuskizuna iragarri zuen Sarek, Xuaren urtebetetze egunerako. Urtarrilaren 19an, Atano pilotalekuan

teaz gain, datozen urteetan gurasoak ikusteko egin beharko dituen kilometroak eta honek dakarren gutzia”. Xua amo-

narekin bizitzera etorriko da Usurbila. Eta hortik aurrera, 1.200 kilometroko bidaia egin beharko du gurasoak bisitatu nahi dituen aldira.

“Urte hau motxilan daramaten pisua kentzen amaitu nahi dugu, kalean”, adierazi zuten Sareko ordezkariak Donostiako kalejiraren amaieran eta urte berria “motxiladun haurren auziari aterabidea ematen diogun urtea izan dadin” desiratu zuten, espetxe politika aldaturiko den urtea izatearekin ba-

tera. “Xua eta motxiladun haur guztiak gurasoekin etxean nahi ditugu!” aldarrikatu zuten.

Ekitaldia Xuaren urtebetetze egunean

Donostiako manifestazio amaieran “Motxilak gora!” ikuskizuna iragarri zuen Sarek Porrotxen ahotik, Xuaren urtebetetze egunerako. “Urtarrilaren 19an Xuari zorionak zuri kantatuko diogu Atanotik”, haur motxiladunak protagonista izango dituen ikuskizunean.

Datozen deialdiak

Urtarrilak 8, asteazkena

■ 9:00 Gipuzkoako Batzar Nagusien hileroko osoko bilkura. Bertan, Xua gurasoekin etxeratzeari buruzko ebazpen proposamena aztertu eta bozkatuko dute.

Urtarrilak 11, larunbata

■ 15:00etan Baionan eta

17:00etan Bilboko La Casillatik “Orain presoak, atera bide-ra” manifestazio nazionalak. Usurbildik Bilbora autobus zerbitzua. Izen ematea aurrez, Aitzagan, Txiribogan eta Bor-daxon. Deitzailea: Sare.

Urtarrilak 19, igandea

■ 11:30 Xuak hiru urte beteko

dituen egunean, “Gora motxilak!” motxiladun haurren eskubideen aldeko ikuskizuna Donostiako Atano pilotalekuan Porrotzekin.

Sarrerak aurrez 6 eurotan sare.eus atarian salgai. Bestela, egunean bertan 8 eurotan. 0-2 urte artekoek sarrera doan. Deitzaileak: Sare eta

Xua Gurasoekin Etxera herri ekimena.

Urtarrilak 31, ostirala

■ 20:00 Euskal presoek eskubideen aldeko eta Xua gurasoekin etxera ekartzeko eskatzeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Odol emateek behera egin dute 2019an, baina mantendu egin da emaile kopurua

Odol emate kopuruak behera egin du 2019an. 2018 eta 2019ko odol-emaile kopurua bere horretan mantendu da 143 emailerekin. Bildu den odol kopurua, ordea, txikiagoa izan da, 251 emanaldi zenbatu diren 2018an eta 227 emanaldi 2019an; 24 emanaldi gutxiago. “Batzuek behin baino ez dute eman odola, beste batzuek bitan eta beste hainbatek hirutan”, esan du Mari Jose Kortak, Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak ordezkaririk.

Inauterietan “nabarmen” egin zuen behera odol emateak Kortaren esanetan: “data horiek ez dira onenak izaten odol-emaileentzat, ez eta udaren osteko lehen odol emate hori ere”. Odola eman ahal izateko baldintza batzuk bete behar izaten dira, eta oporraldian atzerrian izandakoak arriskuan egon izana oso posible izaten da.

Adinari dagokionez, 18 eta 70 urte bitarteko jendeak eman dezake odola, osasun egoera egokian badaude. “Urte askotan odola eman dutenei jada ez diete gehiago odola ematen uzten adina dela eta”, ziurtatu du Odol Emaileen Elkarteak ordezkaririk. Odol ematearen egunean eta hurrengoan kirolik ez egitea aholkatzen dute gorputza gehiegi ez behartzeko. Gainontzean bizimodu normala egiteko ez du inolako ara-



Urtarrilaren 13an izango da urteko lehen odol-ematea, 18:00-20:00 artean anbulatorioan. Argazkian, iaz omenduak izan ziren herritarrik.

BALANTZEA

“251 emanaldi zenbatu ziren 2018an. 227 emanaldi 2019an; 24 emanaldi gutxiago”

zorik sortzen. Hori bai, odola eman aurretik ongi gosalduta joan behar da zorabioak ekiditeko. Sei emaile berri izan dira 2019an, adinez gazteak. Kezka agertu dute Odol Emaileen Elkarteak jende gaztea odola ematera animatzeko, bai eta antolatze lanetan aritzeko. Elkarteak kideak helduak dira

eta aire freskoaren beharra ere nabarmendu dute gazteak animatzeko lanetan aritzeko.

2020ko odol-emate deialdiak
Bi hilabetetik behin izaten da aukera Usurbilgo anbulategian odola emateko, beti ere astelehenetan. Orokorrean hilaren lehen astelehenean izan ohi da eguna, baina jai egun garrantzitsuak tokatzean, bigarren astera pasatzen dute deialdia. Aurtengoan odola emateko lehen aukera urtarrilaren 13an izango da. Datozenak martxoaren 2an, maiatzaren 4an, uztailaren 6an printzipioz

Usurbilgo jaiak atzeratzen ez badira, irailaren 7an eta azaroaren 2an.

Iazkoan omenduak

Urtero omenaldia egiten diete odol emate kopuru handiak egin dituzten herritarrei. 2019an bost herritarrek gainditu zuten 25 odol emateren langa, 40 aldiz eman zuten hiru emakumek, 50 eta 75 aldiz gizon banak eta 100 aldiz bi gizonek. Urtero izaten dira omendu berriak eta urte honetan ere hala izango direla espero dute Odol Emaileen Elkarteak.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net | 649 43 54 75
IT-a k egiten dira | 943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

“Goi mailako ikasketak egiten ari nintzela eman nuen odola lehen aldiz”

Duela zenbait urtetik odol emalea da Joseba Undiano txikierritarra. Omendua izan zen azaroan beste hainbat herritarrekin batera 25 aldiz baino gehiago odola emateagatik. NOAUA!rekin partekatu nahi izan ditu bere esperientziak.

NOAUA! Noiz hasi zinen odola ematen?

Joseba Undiano: Lehenengo aldiz goi mailako ikasketak egiten ari nintzela eman nuen odola 19 bat urte nituela. Eskolara joan ziren erizainak eta animatu egin nintzen klaseko lagun batekin batera. Hark lehenago ere odola emana zeukan eta nik ere animatzea erabaki nuen. Onartu beharra daukat behin prozesua amaituta, otartekoa jaten hasi nintzela eta zorabiatu egin nintzela [kar kar kar]. Behin esperientzia hori bizita kostatu egin zitzaidan bigarren aldiz ematea; denbora dezente igaro zen.

Amarekin animatu nintzen odola ematera hurrengoan, eta hortik aurrera jada ohitura hartu nuen eta oraindik ere horretan dihardut.



Joseba Undiano, kaskoarekin, iazko Irisasi BTT “Hotzak Akabatzen” proba amaitu berrian. Dagoeneko 27 alditan eman du odola.

JOSEBA UNDIANO

“Behin odol ematea amaituta pintxo bat eta jateko zerbait ematen dizute indarberritzeko”

25 aldiz eman duzu jada. Herrian badira ordea 100 aldiz ere eman dutenak. Iritsiko zara zenbaki horietara?

27 bidez eman dut odola jada eskolako eta Usurbilgo anbulategian eman ditudan guztiak kontuan izanda. 100era iritsiko naizen ez dakit, baina odola ematen jarraitzeko asmoa dut behintzat. Saiatuko naiz iristen, baina ikusiko dugu.

Nolakoa da odol emate prozesua?

Behin anbulategira iritsita me-

diku pare batekin hitz egin behar da. Lehenak galderak egiten ditu osasun egoeraren diagnostiko bat egiteko eta odola emateko prest zauden ikusteko: ea atzerrian izan zaren, dentistarenean izan zaren azken hilabeteetan... Arriskuan egon zaren edo ez jakin nahi dute galdera horiekin.

Ondoren proba txiki bat egiten dute anemiarik baduzun jakiteko, hala bada ezin baita odolik eman. Zitxada txiki bat baino ez da izaten, hatz erakuslean. Behin odola emateko prest zaudela ziurtatzen dutenean gela batera joan behar duzu eta bertan ohatila batean etzaten zaituzte eta zuk nahi duzun besoa aukeratzen duzu ziztatzeko. Orduan odol ematea hasten da. Nik nahiko azkar ematen dut, hamar minutuan amaitzen dut. Beste batzuek denbora gehiago behar izaten dute, 10-15 minutu edo, hori pertsona bakoitzaren araber izaten da. Nik ez daukat inolako arazorik ez odolarekin ez orratzekin. Behin odol ematea amaituta pintxo bat eta jateko zerbait ematen dizute indarberritzeko.

“Gustura joaten naiz odola ematera”

NOAUA! Zergatik da garrantzitsua odola ematea?

Joseba Undiano: Ohituraz ematen dut odola nik. Inoiz ospitalean egonda beharko banu odol hori, eskuragarri egotea gustatuko litzaidake eta gainontzekoek ere aukera hori izatea garrantzitsua iruditzen zait. Odola ez da fabrikatzen, eta beraz, norbaitek eman behar du eskuragarri egon dadin. Ez dit odol emateak inolako arazorik sortzen

eta gustura joaten naiz, ez da denbora asko eta oso beharrezkoa den zerbait da. Ez da ezer kostatzen hiru bat hilabete behin anbulategira joan eta odola ematea.

Esperientzia kuriosorik?

Arestian aipatu dudan zorabioarena da agian esperientziarik kuriozoena. 12:00ak aldera eman nuen odola eta 7:00etan gosalduta nuenetik ezer jan gabe nengoan. Beraz,

normala da zorabiatzea. Ogi-tartekoa jaten ari ginela lagunak esan zidan: zorabiatzen ari zara, ezta? Eta halaxe zen. Erizainak etorri zitzaizkidan eta hankaz gora jarri ninduten ohatilan, eta abanikatu egin ninduten. Orditik ongi janda joaten naiz beti, ongi ikasita daukat. Lehen aldi horietan odola ematerako daukagun paperean “zorabio arina” jartzen zuten, hurrengo odol emateetan erizainak jakin zezan lehen

aldi hartan zer gertatu zitzaidan. Aldi horietan oso ongi zaintzen ninduten, gehiegi agian: *Ura nahi duzu? Zorabiatzen ari zara? Etzatea nahi duzu?* Horrelako galderak egiten zizkidaten, baina jada ez du “zorabio arina” jartzen [kar kar kar].

Momenturik okerrenea hala ere, nire ustez, hurrengo egunean tiritu kentzea da, horrek orratzak baino askoz min gehiago ematen du.

Miriam Arrillaga Beloki zoriondu eta omendu du Zubietak

Zubietako herriak me-rezitako omenaldia eskaini zion abenduaren 22an, astebete lehenago Emakume Master Cup-eko 4 t'erdiko txapelketako garaileari. Txalo eta txistulari artean hartu zuten Zubietako errebote plazan, bidean garaipenaren txapela jantzi zuen Miriam Arrillaga Beloki pilotaria.

Ekitaldian, herritarrekin batera, besteak beste, Zubietako Herri Batzarrak eta Zubietako Zortzitan Bertso Eskolako kideek parte hartu zuten. Zubietako alkate Haritz Arrizabalagak hitzordu honen bidez, Miriam zoriontzearekin batera, bere irudia eta "2019ko 4 t'erdiko txapeladunari bihotzez" idatzia zuen oroigarria eman zion. Aurrekua dantzatzu hasi zuten ekitaldia eta bertso eskolako kideek bertsoak abestuz omendu zuten Miriam.



Txalo eta txistulari artean hartu zuten Zubietako errebote plazan. Herritarrek aurrekua dantzatu zioten.

MIRIAM ARRILLAGA

"Lehen omenaldia zuek egin didazue eta asko eskertzen dut"

"Gora emakume pilotariak!"

Omendua esker oneko agertu

zitzeaion Zubietako herriari. "Eskerrik asko. Lehen omenaldia zuek egin didazue eta asko eskertzen dut". Kostata eta elkarlanean irabazitako txapela izan dela nabarmendu zuen Arrillaga Belokik. "Asko kosta zaigu txapela hau ekartzea. Baina denon artean, familia,

lagunak eta inguruko artean txapela hau ekartzea lortu dugu". Azken hitzak emakume pilotariei gorazarre egiteko baliatu nahi izan zituen. "Segi dezagun halako omenaldiak egiten, txapelak ekartzen. Gora pilota eta gora emakume pilotariak!".

Zortzitan Zubietako Bertso Eskolako kideen bertsoak

Nonbait irakurri degu
Miriam agiñarra dela
Inork dudarik ez izan
Zubietarra du labela
Jai Batzordean lanean
Eskuz ta palaz bezela
Lotsati xamar itxuraz
Ez da batere motela
Final batzuek galduta
Tristuraz bete aldagela
Entrenamendun gogotsu
Zein pilotari nobela
Ta merezimendu osoz
Buruan du gaur txapela

Barakaldoko finalera
Etzan erraza iristea
Faborita izanda ere
Txapela etzun merkea
Sanba aita botillero
Motibatuaz topea
Takoak neurritz jarrita
Freskoa behar kolpea
Lau t'erdiko kaiolan
Urduritasun nekea
Korrikaldi txiki batez
Laua ingurun botea
Hogeitabigarrenakin
iritsi zaizu ospea

Galtza txuriak jantzita
Bugatti du iztarrean
Gerriko urdinarekin
Baita gorria noizean
Festetan palaz jokatzen
Bote luzean bestean
Noiz ikusiko ote degu
Sakatzen errebotean
Zazpi tanto saketikan
Egin zitun finalean
Gaur pilota jarriko deu
Luntxaren ondorenean
Boluntariorik ba ote da
Bueltatzeo ahaleginean

Laboral Kutxa EITB Master txapelketako finalean

Emakume Master Cup txapelketako protagonista berberak kantxaratu ziren abenduaren 29an Berrizen jokatu zen finalean. Leire Garai arabarra finago aritu zen honakoan, eta 22-16 gailendu zitzaion Miriam Arrillagari.



Leire Garai nagusitu zen Laboral Kutxa EITB Master Cup-eko finalean.

Hurbilagoren 60 sari baino gehiago, herritarren fideltasuna eskertzeko

Zozketa bikoitza ospatu zuten frontoian 10. Hurbilago San Silbeste Herri Lasterketa amaieran; batetik, lasterketan bertan izena emandakoen artean 50 sari baino gehiago banatu zituzten herriko dendariak. Eta erosketak herrian egiten dituztenen fideltasuna saritzeko, 2 lagunentzako 12 otordu zozketatu zituzten.

Hemen duzue sarituen zerrenda:

Aginaga sagardotegia: Arantxa Arruti, Arantza Uranga, Alazne Begiristain, Cristina Agra.



San Silbeste Herri Lasterketaren amaieran sari ugari zozkatu zituzten.

Artzabal jatetxea: Emilian, Paki Izagirre, Esther Alzugarai,

Naia Arruti.

Saizar sagardotegia: Ane Segu-

rola, Maialen Esoain, Arantxa Manterola, Intza Makuso.

Mirotzen omenez

Infantilen 12. eskubaloi txapelketa ospatu zuten abenduaren 28an Oiardo Kiroldegian, Mirotzen omenez. Egun osoko jaialdia talde parte hartzaileak eta hainbat jokalaririk sarituz amaitu zuten:

■ Atezain onenak: Anaitasuna taldeko Nahia Ugalde eta Tolosa taldeko Iraitz Gorriti.

■ Jokalaririk onenak: Basauri taldeko Ane Martinez eta Amenabar Zarautz taldeko Mikel Etxeberria.

Infantil nesken sailkapena

- 1- Basauri
- 2- Anaitasuna
- 3- Bera Bera
- 4- Tolosa
- 5- Aiala Zarautz
- 6- Usurbil K.E.

Infantil mutilen sailkapena

- 1- Amenabar Zarautz



Gabonetako otar bana tokatu zitzaizkien Agus Martinez eta Maier Albizuri. Esnaola janari dendako arkumeak Olatz Goenagarentzat izan ziren. Argazkien egilea: Usurbil K. E.

- 2- Tolosa
- 3- Basauri
- 4- Anaitasuna
- 5- Usurbil K.E.
- 6- Bera Bera

Gabonetako Zozketa

- 1- Gabonetako otarra: Agus Martinez.
- 2- Gabonetako otarra: Maier Albizu.
- 3- Esnaola janari dendako arkumeak: Olatz Goenaga.




Usurbil Kirol Elkartearen bazkidetza kanpaina

Bazkidetza kanpaina abiatu du Usurbil K.E.-k. Bazkide izanez Usurbil Kirol Elkartea lagundu nahi duenak kontra. usurbilke@gmail.com helbidera idatzi eta izen ematea eskatzen dute eskubaloi taldeen bilgunetik. Hori eginda, "gu jarriko gara zurekin harremanetan". Iragarri dutenez, "urteko 20 euroko laguntza ematea



litzateke". Ordaindutako kuota honen truke, "Usurbil K.E.-ren bazkideentzat egiten diren zozketetan parte hartuko duzu, faseetarako bidaietarako deskontuak lortuko dituzu, salgai jartzen den erropan deskontuak izango dituzu,... eta garrantzitsuagoa dena, gazteen garapenean egiten den lanaren laguntzaile izango zara. Beraz, animatu eta eskerrik asko aldeztu aurretik".





Eguberrietako argazki eta bideo gehiago noaia.eus web orrialdean topatuko dituzue Argazkitegia edota NOAUA TB ataletan.

Ekhine Balerdi: “Neguko pala txapelketak pasata, Euskal Herrikoari begira jarri gara jada”

Ekhiñe Balerdi usurbildarra palan ibiltzen da duela hainbat urtetatik. Herrian ez du aukerarik izan kirol modalitate hori lantzeko eta Hernaniko taldean aurkitu du bere lekua. Deban eta Sakanan txapelketa bana irabazi berri du eta NOAUA! berarekin izan da xehetasun gehiago lortzeko.

NOAUA! Txapelketa bat irabazi berri duzu palan. Palaren mundu horretan txapelketa asko daude? Jende askok jokatzeko duen kirola da?

Ekhine Balerdi: Gipuzkoako Txapelketan izena eman genuen eta azken partida Deban jokatu zen; finala. Anoetaren aurka 24-22 egin genuen eta txapela guretzat izan zen. Normalean astero izaten ditugu partidak. Txapelketetan izena ematen dugu, normalean hilabete batzuk ematen ditugu batean eta gero, beste batean apuntatzen gara. Txapelketa eta txapelketa artean hilabete-ko atsedena edo izaten dugu, eta horrela aritzen gara irailetik uda arte. Neguko txapelketak behin pasata, Euskal Herrikoari begira jarri gara jada.

Hernaniko taldearekin aritzen zara. Usurbilen ez duzu lekurik aurkitu palan aritzeko?

Palan bai, beti aritu izan naiz Hernanin. Eskola Kirolaren buelta horretan palan apuntatu nahi nuela eta koordinatzailea-



“Gipuzkoako Txapelketan izena eman genuen eta finalera iritsi ginen. 24-22 irabazi eta txapela guretzat izan zen”.

EKHINE BALERDI

“Herrian talderik ez zen. Orduan erabaki nuen Hernanin probatzea eta asko gustatu zitzaidan. Bertan jarraitzen dut”

rekin hitz egin nuen, eta hark esan zidan Hernanin bazegoela talde bat. Bi aldiz pentsatu gabe izena eman nuen. Anoetan, Alegian eta inguru horietan badaude taldeak, emakumeak palan mugitzen dira.

Esku pilota da hemen inguruko frontoiko kirolik ezagunena, zu ere horrekin hasi zinen?

Ni gazteagoa nintzela Usurbilen hasi nintzen esku pilotan lagun batekin. Urte batzuk egin genituenean esan ziguten emakumeen txapelketarik ez zegoela eta mutilen aurka ez ziguten aritzen uzten. Takoekin entrenatzen ere hasi ginen, baina mutilen indarra eta gurea oso ezberdinak ziren eta ezin genuen jarraitu. Palan hasteko proposamena egin ziguten, baina herrian talderik ez zegoen. Orduan erabaki nuen Hernanin pala probatzea eta asko gustatu zitzaidan, eta bertan jarraitzen dut.

Noiz hasi zinen eta zergatik?

Txikitatik gustatu izan zait esku pilota, partidak telebistan ikusten dituen horietakoa naiz. Duela 5-6 urte hasi nintzen palan. Hasiera haietan ez genuen fundamentu handirik jartzen, baina behin serio lanean jarrita txapelketa batzuk irabazten hasi ginen. Pare bat irabazi ditut binakakoan. Ni aurrelaria naiz eta normalean bikote berdinarekin jokatzeko dut. Orain Etxarriko txapelketa batean eman dugu izena eta bikoteak nahasten dituzte bertan, beraz, Irungo neska batekin arituko naiz. Ataunen ere jokatzekoak gara laster, eta bertan Astearreko bikotea izango dut.

“Mutilak gehiago aritzen dira esku pilotan”

Emakume Master Cup txapelketa esku pilotari lotuta badago ere, bai emakumeak eta baita esku pilota ere ezagunago egiten ari da. Palan ere gisa horretako zerbait badago?

Ekhine Balerdi: Euskal Herriko txapelketa badago, baina

ez da Master Cup-aren mailakoa. Telebistaz ez dute botatzen eta ez dauka ospe berezirik.

Barrutik ongi ezagutuko duzu palaren mundua, nolakoa da palan aritzen diren emaku-

meen egoera? Nik uste orokorrean palaren mundu hau emakumeona dela gehiago gizonena baino. Palan jokatzeko duten emakume gehiago daude gizonak baino. Mutilak gehiago aritzen dira esku pilotan fron-

toiko kiroletan. Hala ere, Hernanin mutil dezente daude palan aritzen direnak. Beste modalitate batzuetan aritzen dira, pala motzean adibidez. Pala bera lodiagoa eta txikiagoa da, eta horretan bai gehiago aritzen direla.



Alazne Arruti Bengoetxea

Sekula ez naiz izan urte berriaren aitzakiaz, hurrengo urtean egikaritu nahi dituenak zerrendatzen dituen pertsona horietakoa. Ez paper bat hartu eta mahaiari zintzo esertzen den horietakoa behintzat. Bai, akaso mahatsak irentsi, familia mozkortuaren musu eta besarkaden zurrunbilatik aldendu eta kuadrillakoen parranda gogo eta emozio nahasietara jauzi egitean bota ditut euforia betean “datorren urtean alboka ikasten hasiko naiz. Bueno, eta gitarrarekin serio jarriko naiz. Edo ze demontre, zergatik ez gaitarekin hasi?” gisako pare bat tontakeria. Baina, paper batean halakoak jasotzeko are eta eragin gutxiago izango lukeela pentsatu izan dudanean sentsazioa dut.

Ikusitakoak ikusita eta bizitakoak bizita, aurten amaitu (edo sortu) zaizkit aitzakiak ordea. Hementxe nago, ordenagailuko pantailari datorren urteari zer eskatzen dion galdezka. Orri zuriaren gainean nire aurpegiaren bekoki zimurtua topatu dudanean arte. Et, et, et... ez begiratu horrela, aditu? jada ez dago atzera bueltarik. Baina, nondik hasi behar izaten da halako zerrenda?

Urtearen errepasoa egiten hasi naiz. Ikasle izatetik, langile izaterako trantsizioan



“Eskatu baino, egin nahi ditudan edo egunerokotasunean ahaztu nahi ez nituzkeenak zerrendatzea hobe izango da”.

ALAZNE ARRUTI BENGOETXEA

**“Eta orain zer?
Zer eskatu altzoan
hartu gaituen
urte berri honi?”**

eman nituen 2019aren lehen hilabeteak. Ostera saskibaloia-ri berrekin diot. Jada ez daukat autoko L-a erortzeagatik (berri-oro ere) isuna jasotzeko arriskurik. Eta orain zer? Zer eskatu altzoan hartu gaituen urte berri honi? Eskatu baino, egin nahi ditudan edo egunerokotasunean ahaztu nahi ez nituzkeenak zerrendatzea hobe izango da:

1. Ingurukoak zaintzea ondo dago, baina norbera zaintzea ahaztu gabe. Osasun fisikotik abiatzea aukera bikaina den arren, osasun mentalari behar bezalako garrantzia eman behar harko zenioke. Arduratu eta

ezagutu itzazu, entzun eta ikasi emozioak landu eta kudeatzen.

2. Ez neurtu denbora dirutan, ez zapuztu egin nahi zentituzkeenak etorkizunaren ziurgabetasunagatik. Berau zuk erakitzen eta erabakitzen duzunez, ez da garaiz kanpo egindakorik. Eta bide batez, hasi buruan darabilzun bidaia horri forma ematen.

3. Ez egin kasurik inbidia onik ez dagoela diotenei. Ingurukoengatik poztea eta beraien lekuan egon nahi izatea bateragarria eta guztiz sana izan daiteke.

4. Ikasi alboka jotzen, hasi ostera pintatzen edota astindu gitarra trakets. Ingurua eta zeure buruari denbora gehiago eskaintzeko modu asko daude. Hartu denbora zuretzat.

5. Jarraitu berdintasunaren alde bizi eta aldarrikatzen.

Eragin inguruan. Guztiok babestu eta onartuko gaituen gizarte justu eta parekideago bat osatzeko lan asko dugu aurretik.

6. Utzi dokumentuetan idatzitako karaktere kopurua gainbegiratzeari eta jarraitu idazten.

7. Euskal Herriko tontorrak zertxobait gehiago ezagutzen hasteko garaia da. Behin Hernio eta Andatzarako bideak ezagututa, zabaldu horizon-teak, zoko-miatu bazterrak.

8. Erabili ezan gehiago noka, matraka alaien hori! Inguru euskaldun batean jaio izanaren pribilegioaren kontzientzia hartu. Eta zabaldu.

9. Irten hadi noizean behin kalera inorekin hitzordua zehaztu aurretik. Inprobisatu ezan. Hartu azukrerik gabeko kafe garratz bat heurrekin eta eguneratu elkar.

10. Saiatu garaian garaikoa eta bertakoa kontsumitzen. Ez ezan ahaztu elikaduraren oinarri politikoa eta batez ere, birziklatu, berrerabili eta murriztu.

11. Ikasi bakarrik bidaiatzen, inoren behar eta mamurik gabe.

12. Urte berri honetan, datorrena datorrela, jarraitu bizitzen. Hire esentziari eusten. Helburu on edo txarrik gabeko, baina egunero oroitutako beharrekoez zerrenda amaigabe hau elikatzen.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

Partenarietateak
Partenarietateak
· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Orain arteko ke zutabe ikusgarriena erraustegitik

WhatsApp bidez jasotzen genuen San Tomas egunez, albiste honi atxikitako argazki ikusgarria. Zubietako erraustegia ageri da, azken asteotan ikusi den inoizko ke zutabe handiena isurtzen. Argazkiak argitu beharreko gutzia argitzen du, ez du bestelako aipamenik behar.

Martxoaren 3an martxan nahi

Gogoan izan, azaroaren 28az geroztik probaldi fasean dutela Zubietako erraustegia. Abenduaren 16an Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioak (GHK) berri eman zuenez, erraustegia bera eta Zubietan gaineko gainerako azpiegiturak ere martxoaren 3an martxan jarri asmo dituzte.

Intxaurrandieta eta

Errazkinen aurka berriz

2013an Zubietako erraustegi-ko lanak geratzea erabaki zuten enpresa eraikitzaileekin adosturiko akordio bidez garai hartan foru gobernuan ziren EHBilduko ordezkariak. Erabaki haren aurka salatu zituen Ainhoa Intxaurrandieta (GHK-ko lehendakari izandakoa) eta Iñaki Errazkin (foru ingurumen diputatu ohia) EAJ eta PSE-k agintera heldu zirenean. 40 milioi eurotik gora ordaintzea eskatzen zieten Zubietako erraustegia geratzeagatik. Espainiako Kontu Auzitegiak ordea bitan eman zien arrazoiak EHBilduko ordezkariari. Erraustegia geratzea ez zela delitua izan eta



San Tomas egunez zabaldu zen irudi hau sare sozialen bidez.

MARTXOAN, MARTXAN

Abenduaren 16an Gipuzkoako Hondakinaren Kontsortzioak berri eman zuenez, erraustegia eta gainerako azpiegiturak martxoaren 3an martxan jarri asmo dituzte

proiektua bera gairadimentsionatua zegoela aitortu zuen.

Orain berriz, Intxaurrandieta eta Errazkinen aurka jotzea erabaki du EAJ eta PSE agintean dituen GHK-k. Oraingoan, “ondare erantzukizun zuzeneko espeditante bati hasiera ematea onartu” zuten abenduaren 16an Kontsortzioak eginiako asanbladan, 2013ko azaroaren 25ean Gipuzkoako

Hondakinak Kudeatzeko Zentroaren aurreko proiektuaren eraikuntza geldiarazteko ebazpena berresten zuten erabakia onetsi eta aldeko botoa eman zuten agintarien aurka”.

Mobilizazioa ostegunean

2018ko irailean Zubietako erraustegiaren aurkako martxan parte hartu zuten ia 2.000 lagunek. Mobilizazio hartan Ertzaintzak lau lagun salatu zituen. Abenduaren 4an epaitu zituzten lehenengoak, ostegun honetan (urtarrilak 9) gainerakoak. Duela hilabete egin bezala, martxalariei babesa adierazteko elkarretaratzea deitu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Donostiako Egiako epaitegi atarian, 10:30ean.

Sexu-biolentziari buruzko hitzaldia

“Espainiar estatuko prostituzio etxeetan bost urtean salerosketatrafikoa eta sexu-esplotazioa pairatu ostean bere bizitza borroka feministari eman diolarren testigantza jasoko dugu.

Adorea, ahalduntzea, erresilientzia eta militantzia feminista: subjektu politiko bihurtzeko gakoak”. Hortxe Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak urtarrilaren 17rako antolatua

duen “La violencia sexual en el neoliberalismo: estrategias feministas para combatirla” gaztelarazko saioa. 19:00etatik aurrera, Sutegiko auditorioan.

Sorospen ikastaroa, DYAren eskutik

DYA Gipuzkoak sorosle eta lehen sorospen ikastaro bat eskainiko du Usurbilen. Urtarrilaren 11n hasiko da eta saioak euskaraz izango dira.

Urtarrilaren 11n hasi eta otsailaren 1era arte luzatuko da ikastaroa. Saioak larunbatetan egingo dira, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, DYAk Muna Lurra kalean duen egoitzan.

Ez da beharrezkoa aurrez ezagupenik izatea, “egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko dute. Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausturak, erredu-rak... Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezaketenak, oso modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak landuz”, DYAtik aditzera eman dutenez.

Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du.

Prezioa, 120 euro

Matrikularen prezioa, ikastarorako txostena barne delarik, 120 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua izango da, ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearen.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943-46.46.22 telefonora edo sartu www.DYAgipuzkoa.com web orrialdean.

Txosna batzordea

izendatzeko kanpaina

Aitzagan, Txiribogan, Txirristan eta Zendoian jarritako kaxetan proposatu ahalko da izena. Urtarrilaren 10ean amaituko da proposamenak egiteko epea. Izen berriaren aurkezpena aldiz, urtarrilaren 31rako iragarri du Txosna Batzordeak.

Futbolari gaztetxoek topagunea



Abenduaren 29an futbol talde ezberdinak aritu ziren Harane futbol zelaian.

Euskal Herriko hainbat txokotako futbolari gazteak bildu zituen abenduaren 29an Haranen Usurbil F.T.-ren gabonetako futbol txapelketak.

2009an jaiotako gaztetxoek hartu zuten parte; Usurbil F.T.-rekin batera, Allerru KE, Antiguoko KE, Baztan KE, Billabona FKE, Lazkao KE, Orioko FT eta Urnieta KE-k.

Gabonetako zozketa

Gabonetako zozketan hauek izan ziren zenbaki sarituak:

- 3197 (Bruñoko mariskada).
- 3449 (Marije denda).
- 6436 (saski bat).

Urte hasiera Andatzan



Azken urteotako ohiturari jarraituz, 2020a mendi buelta eginenez hasi zuenik bada inguruetan. Ondoko kuadrila batu zen

urtarrilaren lehenean Andatza gainean, Iñaki Bengoetxea herritarrak helarazi digun argazkian ikus dezakezue.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako izen emateak zabalik jarraitzen du

Urtarrilaren 26ko mendi bizikleta gaineko probarako izen emateak zabalik segitzen du kirolprobak.com atarian, 16 urtetik gorakoentzat. 14-16 urte artekoek ere parte hartu ahalgo dute, beti ere une oro heldu bat alboan badute. Kasutan izen ematea irisasibt@gmail.com helbidetik bideratu ahalgo da. Proba egunean bertan ere eman ahalgo da izena, 8:45ak arte. Gogoan izan, hilaren 26an 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak frontoitik.

Futbol partidak

Urtarrilak 11, larunbata

■ 10:00 Infantilak:

-Udarregi Usurbil F.T. A
-CD Internacional

■ 12:00 Kadete neskek:

Usurbil F.T.-Ostadar SKT

■ 15:30 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Allerru JKE "A"

■ 18:00 Erregionalak:

Usurbil F.T.-Euskalduna SD

Espainiako Itzulia

Usurbildik

igaroko da

Irunen hasi eta Eibarko Arraten amaituko den Espainiako "La Vuelta" txirrindularitza probako etapetako batek (169,5 kilometroko luzeera duen laugarren etapak) Usurbil zeharkatuko du abuztuaren 18an.

Bereziki iberiar penintsulako ipar parte zeharkatuko duen 75. edizioa abuztuaren 14an Herbehereetan abiatuko da Utrecht-en. Lehen hiru etapak (tartean, erlojuz kontrako taldekako proba) osatuta, handik zuzenean Euskal Herrira dator abuztuaren 18an. Laugarren etapa hain zuzen, Irunen hasi eta Arrate gainean amaituko da. Ibilbide horretan "La Vuelta"k Usurbil zeharkatuko du. Etapako 26. kilometroa izango da herri hau.



Abuztuaren 18ko etapa Irunen abiatuko da eta Usurbildik igaroko da.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA



MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665
XABIER Usurbil

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harri. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharra doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA! ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe baten bila gabiltza alokairuan edo salmantan Usurbilen. 688 714 317. Deitu astean zehar 16:30etik aurrera edo asteburuetan.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genduke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatzeko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska

bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil

bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetoako kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaitasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo externa bezala. 633 148 710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska



Zorionak Irati!

Urtarrilaren 8an 2 urte bete zenituen.

Zorionak etxeko eta senideen partetik!



Zorionak Xune!

Urtarrilaren 8an 5 urte egin zenituelako!

Muxu erraldoi bat familiaren partez.

usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan,

persona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona hel-

duak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

BESTELAKOAK

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberé-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ...	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 09 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 15 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Urtarrilak 09- Urtarrilak 19

Osteguna 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urtarrila

10 ostirala

■ **Joxan Artze gogoan.** Idatzizko eskaintzak idatziz egiteko aukera, Sutegiko udal liburutegian.

11 larunbata

■ **Joxan Artze gogoan.** Idatzizko eskaintzak idatziz egiteko aukera, Sutegiko udal liburutegian.

12 igandea

■ **Haurrentzako zinea euskaraz.** 17:00etan Sutegin. Sarrera: 3 euro, egunean bertan. Nori zuzendua: 3 urtetik gorakoentzat.

■ **Joxan Artze gogoan.** Idatzizko eskaintzak idatziz egiteko aukera, Sutegiko udal liburutegian.

Haurrentzako zinea euskaraz

Erregeen bisitarekin egokitu zenez, astebete atzeratu da Usurbilgo Udalak Ziortza G.E.-ren laguntzaz negu parte honetarako antolatua duen haur eta gaztetxoei zuzenduriko euskarazko zine zikloa. Urtarrileko proiektzioa igande honetan (hilaren 12a) izango da 17:00etan Sutegiko auditorioan.

“Pirata Arratoia” izeneko filma proiektatuko dute. “Kontuz arratoi pirataekin! Bide lapurren artean gozo zaleena... Bere zaldiaren gainean, bidean aurkitzen duen bidaiari guztien janaria lapurtzen du bera baino maltzurragoa den norbaitekin topogiten duen arte. Julia Donaldsonen sortutako primerako istorio dibertigarria”.



“Pirata Arratoia” filma eskainiko dute igande honetan, 17:00etatik aurrera, Sutegin.

Sarrerak egunean bertan salgai

3 urtetik gorakoei zuzenduriko proiektzioarako sarrera 3 eurotan eta egunean bertan izango dute salgai.

Datozenak

Euskarazko irakurketa solasaldia

Urtarrilaren 22an 19:00etan Sutegi udal liburutegian, liburutegiak berak eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuta. Eider Rodriguezen “Bihotz handiegia” ipuin-bilduma aztertuko da ikuspegi feministatik, Kattalin Miner kazetari eta idazleak bideratuko duen saioan. Liburuak eskuragarri dituzue Sutegin.

“Dantza”, Inauteri

Festarako mozorroa

Gogoan izan, “Dantza” dugu otsailaren 22an ospatuko den Inauteri Festan mozorrotzeko gaia. Jaialdiari buruzko xehetasun gehiago hurrengo asteetan.

KzGunea, arratsalde

■ Urtarrilak 13-15, 18:00-20:00 “Facebook zure Smartphonean”.

■ Urtarrilak 21, 16:00-18:00 “Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi”.

■ Urtarrilak 28, 18:00-20:00 “Zure bidaia planifikatu”.

■ Urtarrilak 30, 16:00-18:00 “WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean”.

Informazio gehiagorako: Nagusia, 37 943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Joxan Artze gogoan

Idazle usurbildarra zendu zela bi urte bereteo diren egunotarako Joxan Artze omentzeko bi ekimen iragarri ditu Usurbilgo Udalak; batetik, urtarrilaren 7tik 17ra hitz batzuk idatziz eskaintzeko aukera izango da Sutegi udal liburutegian izango duzuen liburuan. “Idatzi txiki bat, poema bat,

Joxan gogoan bihotzetik ateratzen zaigun hori idatzi ahal izango dugu bertan”.

Bere obra, udal liburutegian

Horrekin batera, epe berean, kultur etxeko erakustaretoan Artzeren liburuak jarriko ditu ikusgai udal liburutegiak.

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA

ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil




2020ko **Urtarrilaren 10**ean, ostirala, **20:00**tan

Betiko Sagardoa

TXOTX 20

Zabalik!

Miguel Indurain-ek
“Hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria!” esanaz, 2020ko Txotx denboraldiari hasiera emango dio.



SAIZAR

Sagardotegia

Musika eta dantza **Korrontzi**
Aurkezlea **Julian Iantzi**

OHARRA:
Soilik sarrera izango dute erreserbatutako mahaiek.

Kale-zahar, 39 · 20170 USURBIL (Gipuzkoa) ·  943 373 995 · sidreria@sidrassaizar.com

www.sidrassaizar.com



URDAIRA

Sagardotegia
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 18tik maiatzak 3ra
TXOTX GARAI
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

www.iruinsagardotegia.com

IRUIN
sagardotegia

TXOTX denboraldi berria 2019, primerako sagardoekin
943.361.229

☺ ☑ ☎ ☎

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

SAIZAR

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

943 37 39 95

SAGARDOTEGIA
aginaga **Hotela****

URTE OSOAN
ETXeko SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

AIALDE BERRI

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

%100 bertako saarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea